

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1278

188/2022 EBAZPENA, otsailaren 28koa, Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Maria del Carmen Floristan Imizcoz andrearen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuko Farmaziako Atal Sanitarioko Buru lanpostuaren eginkizunen esleipena baliogabetzen den.

162/2018 apirilaren 27ko Ebazpenaren bidez Maria del Carmen Floristan Imizcoz andrea izendatu zen Atal Sanitarioko burua Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuan (2018ko maiatzaren 21eko EHAA 96. zk.).

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Maria del Carmen Floristan Imizcoz andreari Atal Sanitarioko Buru lanpostuari dagozkion eginkizunak esleitu izana baliogabetzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitarioan; eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2022ko otsailaren 27tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari eta EHAAn argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Barakaldo, 2022ko otsailaren 28a.

Barakaldoko ESiko zuzendari-gerentea,
JOSEBA JULEN BALLESTERO ZARRAGA.